2.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikulua agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Udalbatzarrek onar dezan proposatua, Donostian, 2016ko urriaren 6an".=====

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 6 de octubre de 2016".=====

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiria hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatezatzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamaseko azaroaren bian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a dos de noviembre de dos mil dieciséis.

ALKATEAK O. E. /
V. ° B. ° DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso".

(8') GZK. Zezen festen gaineko herri kontsulta egitea onartzea eta Espainiako Gobernuari horretarako baimena eskatzea.

(8') FOD. Aprobación de la realización de la consulta popular sobre corridas de toros y solicitud de autorización al Gobierno de la Nación para la misma.

“UDALBATZARI

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

Herri kontsulta herritarrek parte hartzeko tresna bat da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko IV. kapituluak (Herritarrei informazioa ematea eta beraien parte-hartzea) arautzen duena.

La Consulta Popular es un instrumento de participación ciudadana regulado en la capítulo IV de la ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, “Información y participación ciudadana”.

Hala, Donostiako Udalak onartuta duen Herritarren Partaidetzari buruzko Arau Organikoak arautzen dituen tresnetako bat herri kontsulta da, eta 16. artikuluan jartzen du:

1. Herritarrei garrantzi bereziko udal gaiei buruzko kontsulta egin ahal izango zaie, Tokiko Ogasunari buruzko gaiei buruz izan ezik.

3. Herri-kontsulta egiteko, Udal Batzarrak erabateko gehiengoz erabaki beharko du eta 7/1985 Legearen 71. artikuluan edo hori ordezkatzan duen arauan aurreikusitakoarekin bat etorri izapidetu.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 71. artikulua jartzen du osoko bilkuraren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuak baimena eman ondoren, auzotarren intereserako berebiziko garrantzia duten udalaren eskumeneko eta toki-izaerako arazoei buruzko herri-galdeketa egin ahal izango dutela alkateek, toki-ogasunari dagokion arazoetan izan ezik.

Lege hori garatzen duen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 80. artikulua arautzen ditu herri kontsultak. Hark zera jartzen du:

Alkateek, osoko bilkurak gehiengo osoz hala erabaki ondoren eta Estatuko gobernuaren baimenarekin, herritarren edo komunitatearen interesentzat garrantzi handia daukaten gaiei buruzko iritzia galde diezaioke herriari, baldin eta gaiok udalaren eskumenekoak eta toki-administrazioaren ingurukoak badira. Tokiko araubideari buruzko legerian debekatuta dauden eremuetako gaiez, ordea, ezin izango da galdeketa egin.

Hala, udal baliabideak zezenketak egiteko

La Norma Orgánica de Participación Ciudadana aprobada por este Ayuntamiento regula entre otros instrumentos, la consulta popular, estableciendo su artículo 16 lo siguiente:

1. Los vecinos y vecinas podrán ser consultados respecto a asuntos municipales de especial trascendencia, exceptuados los relativos a la Hacienda local.

3. Para la realización de la consulta popular, el Pleno municipal deberá acordarlo por mayoría absoluta y tramitarlo conforme a lo previsto en el artículo 71 de la Ley 7/1985, o norma que lo sustituya.

El art 71 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local establece la posibilidad de que los Alcaldes, previo acuerdo por mayoría absoluta del Pleno y autorización del Gobierno de la Nación, sometan a consulta popular aquellos asuntos de la competencia propia municipal y de carácter local que sean de especial relevancia para los intereses de los vecinos, con excepción de los relativos a Hacienda Local.

La ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, de desarrollo de la ley antes mencionada, regula en su artículo 80 las consultas populares, estableciendo lo siguiente:

Los alcaldes o alcaldesas, previo acuerdo por mayoría absoluta del pleno y autorización del Gobierno del Estado, podrán someter a consulta popular aquellos asuntos de la competencia propia municipal y de carácter local que sean de especial relevancia para los intereses de la comunidad vecinal, con excepción de los relativos a ámbitos vedados en la legislación básica de régimen local.

Existe interés en conocer la voluntad de la

erabiltzearen gainean herritarrek zer nahi duten jakiteko interesa dago.

Ciudadanía de este Municipio en relación a la utilización de los recursos municipales para la realización de corridas de toros

Hori dela eta, hizpide dugun tresna hau tresna egokia denez borondate hori jakiteko, hauxe da Udaltzari proposatutako

Siendo esto así y visto que este instrumento resulta idóneo para conocer la misma, es por lo que se propone al Pleno del Ayuntamiento la adopción del siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

Lehenengoa: Onartzea udal baliabideak erabiltzea zezenketak egiteko herri kontsulta hitz hauekin egitea:

Primero: Aprobar la realización de la consulta popular sobre la utilización de recursos municipales para la realización de corridas de toros en los siguientes términos:

"Nahi al duzu Udalak, udal baliabideak edo instalazioak bideratzea zezenketak egiteko?"

"Quiere usted que el Ayuntamiento destine recursos o instalaciones municipales para la realización de corridas de toros"

Erantzunak: BAI/EZ

Respuestas: SI/NO

Bigarrena: Espainiako Gobernuari baimena eskatzea goian adierazitako gai horren gaineko herri kontsulta egiteko.

Segundo: Solicitar autorización del Gobierno de la Nación para someter a Consulta Popular el asunto arriba señalado.

Hirugarrena: erabaki honek ez dio uko egiten Udalak bestelako tresna legalak erabiltzeari zezen festen inguruko udalerriko hiritarren borondatea jakiteko.

Tercero: este acuerdo no supone una renuncia por parte del Ayuntamiento a la utilización de otros instrumentos legales para conocer la voluntad de la ciudadanía de este municipio sobre las corridas de toros.

Donostia / San Sebastián 2016ko urriaren, 18an.

Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria.

Concejala delegada de Barrios y descentralización Cívica, Igualda y Cooperación.

Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Herri Partaidetza Zerbitzu Burua.

Jefa de Servicio de Participación Ciudadana"

Amaia Agirreolea Gomez".

Eztabaida hasita, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Alkate-Udalburuak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D^a. Duñike Agirrezabala Ugarte, D^a. Amaia Martín Garín, D^a. Miren Albistur Garmendia, Alcalde-Presidente y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (1) IRABAZI DONOSITA.

AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ-PNV, (7)

PSE-EE, (1) IRABAZI DONOSITA.

VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

II

MOZIOAK

II.1

MOZIO ARRUNTAK

9. Mozio arrunta, PP Taldeak aurkeztua, azpiegitura berriak eta irisgarritasun unibertsala direla eta.

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, azpiegitura berriak eta irisgarritasun unibertsala direla eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Lehenago irailean Altzako topo geltoki berria jarri

II

MOCIONES

II.1

MOCIONES ORDINARIAS

9. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre accesibilidad universal en las nuevas infraestructuras.

“Dña. Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre accesibilidad universal en las nuevas infraestructuras.

JUSTIFICACION:

El pasado mes de septiembre se ha puesto en

zen martxan eta inguru horretako 15.000 bizilagun ingururi emango die zerbitzua. Geltokiak bi bidaiari gune eta bi sarrera ditu, Larratxo pasealekuan, osasun zentroaren ondoan, eta Santa Barbaran.

Nolanahi ere, irtenbide partziala eman zaio, irisgarritasunari dagokionez, azpiegitura berri horri; izan ere, urrun dago guztien premiak asetzetik, batez ere, adineko jendearen premiak edo desgaitasunen bat edo mugikortasun arazoak dituen jendearen premiak asetzetik, eta ez dute ulertzen nolatan eman zaion horrelako irtenbide bat azpiegitura ireki berri bati, eta XXI. mendean.

Altzako bizilagunak kexu dira geltoki barrura sartzeko igogailuak plazaren erdian daudelako, egurats gorrian, eta non babestu ez dagoelako. Eta sarbide bakoitzean mugikortasun urriko pertsonen sarrera oztopatzen duten zenbait eskailera-maila daudelako. Horrek ez dirudi irtenbide egokia horrelako azpiegitura eraiki berri baterako zeinaren eraikitze-lanak Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen Eusko Trenbide Sareak-i egokitu baitzaio.

Gogoratu behar da, gainera, 2030erako aurreikusten dela Donostiako biztanleriaren % 30 hirurogeita hamar urtetik gorakoa izatea, eta azpiegitura eta ekipamendu berriak herritar orok erabiltzeko moduan eraiki behar direla, horretarako ordaintzen dituzte eta beren zergak eta dituzte eskubide eta betebeharrak.

Horra hor zergatik aurkezten dudan MOZIO ARRUNT hau:

Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio haren eskumenpean Donostian eraikitzen diren ekipamendu eta azpiegitura guztiak irisgarritasun unibertsalari buruzko

marcha la nueva estación del Topo en Altza, que da servicio a unos 15.000 vecinos de esta zona de la ciudad. La estación dispone de dos vestíbulos y dos cañones de acceso que desembocan en el paseo de Larratxo, junto al ambulatorio, y en Santa Bárbara.

Sin embargo, se ha dado una solución parcial de accesibilidad a esta nueva infraestructura que dista mucho de satisfacer al conjunto de la población, sobre todo a la que cuenta con mayor edad, o con algún tipo de discapacidad, o dificultades para la movilidad, y que no entienden cómo se ha podido dar una solución de este tipo a una infraestructura recién inaugurada, y en pleno siglo XXI.

Se quejan los vecinos de Altza que los accesos en ascensor al interior de la Estación se encuentran en mitad de la plaza; que están al aire libre, por lo que no hay posibilidad de resguardarse de los rigores climáticos. Y que hay varios tramos de peldaños en cada una de las bocas que dificultan el acceso a personas con movilidad reducida; lo cual no parece una solución idónea para una recién construida infraestructura de este tipo, cuyos trabajos han correspondido a Eusko Trenbide Sarea, dependiente del Gobierno Vasco.

Hay que recordar, además, que, en 2030, se espera que el 30 por ciento de la población de San Sebastián tenga más de sesenta años, y que hay que preparar las nuevas infraestructuras y equipamientos con vistas a su utilización plena por el conjunto de la ciudadanía, que para eso pagan sus impuestos y tienen todos los mismos derechos y obligaciones.

Es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:

El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Vasco que en los equipamientos e infraestructuras que, bajo su competencia, se construyan en San Sebastián, se hagan respetando e incorporando

arauak errespetatuz eta betez eraiki daitezela desgaitasunen bat edo mugikortasun urria dutenen autonomia osoa ahalbidetzeko.

las previsiones normativas relativas a la accesibilidad universal, para permitir la autonomía plena de aquellas personas que sufran algún tipo de discapacidad o que tengan movilidad reducida.

Donostia, 2016ko urriaren 6a.

En San Sebastián, a 06 de Octubre de 2016

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea”

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D^a. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

EH BILDU TALDEAK 9. GAIARI AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 1 AL ASUNTO Nº 9 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

**BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

EH BILDU TALDEAK 9. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 2 AL ASUNTO Nº 9 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

**BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.**

**ALDEKO BOTOAK: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.**

**VOTOS A FAVOR: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK 9. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO Nº 9 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA. / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

9. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DEL ASUNTO Nº 9:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

9. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DEL ASUNTO Nº 9:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

9. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DEL ASUNTO Nº 9:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
ALDEKO BOTOAK: 24 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
VOTOS A FAVOR: 24 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

EH BILDU TALDEAREN 1. ZUZENKETA EZ DUTE ONARTU BAINA BAI TALDE HORREN 2.A, GEHITZEKOA. HORTAZ, MOZIOA BI PUNTUREKIN GELDITU DA ETA AKATS BAT EGIN DA MOZIOA PUNTUKA BOZKATUTA. 2. PUNTUAREN GAINEKO BOZKETA EZ EGINDAKOTZAT JO BEHAR DA ETA 3. PUNTUAREN GAINEKO BOZKETA, HALAKORIK EZ BAITAGO, 2. PUNTUAREN GAINEKOA IZAN DELA JO BEHAR DA. / AL HABERSE RECHAZADO LA ENMIENDA Nº 1 DEL GRUPO EH BILDU Y HABERSE APROBADO LA ENMIENDA DE ADICIÓN Nº 2 DEL MISMO GRUPO, LA MOCIÓN PASA A TENER DOS PUNTOS, POR LO QUE SE COMETE UN ERROR AL VOTAR LA MOCIÓN POR PUNTOS. LA VOTACIÓN AL PUNTO Nº 2 SE

DEBE TENER POR NO REALIZADA Y SE DEBE ENTENDER QUE LA VOTACIÓN AL PUNTO Nº 3 (INEXISTENTE) SE PRODUCE AL PUNTO Nº 2.

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN
BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hamaseiko urriaren hogeita zazpian izan zuen osoko bilera ohikoan, PP taldeak azpiegitura berrien irisgarritasun unibertsalaren gainean aurkeztutako mozio arrunt bat onartu zuela, Udalbatzak onartutako bi zuzenketa eske ere badituena. Zuzenketa bat eranstekoa da, EH BILDU taldeak aurkeztu zuen, eta bestea EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarren artean aurkeztu zuten, erabaki zatiko aurreneko puntua aldatzeko. Horiek horrela, hauxe da behin betiko onartutako testua:

“Lehengo irailean Altzako topo geltoki berria jarri zen martxan eta inguru horretako 15.000 bizilagun ingururi emango die zerbitzua. Geltokiak bi bidaiari gune eta bi sarrera ditu, Larratxo pasealekuan, osasun zentroaren ondoan, eta Santa Barbaran.

Nolanahi ere, irtenbide partziala eman zaio, irisgarritasunari dagokionez, azpiegitura berri horri; izan ere, urrun dago guztien premiak asetzetik, batez ere, adineko jendearen premiak edo desgaitasunen bat edo mugikortasun arazoak dituen jendearen premiak asetzetik, eta ez dute ulertzen nolatan eman zaion horrelako irtenbide bat azpiegitura ireki berri bati, eta XXI. mendean.

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO
DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de octubre de dos mil dieciséis, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo PP sobre accesibilidad universal en las nuevas infraestructuras, que incorpora dos enmiendas aprobadas, una de adición, presentada por el Grupo EH BILDU, y la segunda, presentada conjuntamente por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, de modificación del punto primero de la parte dispositiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

“El pasado mes de septiembre se ha puesto en marcha la nueva estación del Topo en Altxa, que da servicio a unos 15.000 vecinos de esta zona de la ciudad La estación dispone de dos vestíbulos y dos cañones de acceso que desembocan en el paseo de Larratxo, junto al ambulatorio, y en Santa Bárbara.

Sin embargo, se ha dado una solución parcial de accesibilidad a esta nueva infraestructura que dista mucho de satisfacer al conjunto de la población, sobre todo a la que cuenta con mayor edad, o con algún tipo de discapacidad, o dificultades para la movilidad, y que no entienden cómo se ha podido dar una solución de este tipo a una infraestructura recién inaugurada, y en pleno siglo XXI.

Altzako bizilagunak kexu dira geltoki barrura sartzeko igogailuak plazaren erdian daudelako, egurats gorrian, eta non babestu ez dagoelako. Eta sarbide bakoitzean mugikortasun urriko pertsonen sarrera oztopatzen duten zenbait eskailera-maila daudelako. Horrek ez dirudi irtenbide egokia horrelako azpiegitura eraiki berri baterako zeinaren eraikitze-lanak Eusko Jaurlaritzaren mende dagoen Eusko Trenbide Sareak-i egokitu baitzaio.

Gogoratu behar da, gainera, 2030erako aurreikusten dela Donostiako biztanleriaren % 30 hirurogeita hamar urtetik gorakoa izatea, eta azpiegitura eta ekipamendu berriak herritar orok erabiltzeko moduan eraiki behar direla, horretarako ordaintzen dituzte eta beren zergak eta dituzte eskubide eta betebeharrak.

Horra hor zergatik aurkezten dudan MOZIO ARRUNT hau:

1.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die haren eskumenpean Donostian eraikitzen diren ekipamendu eta azpiegitura guztiak irisgarritasun unibertsalari buruzko arauak errespetatuz eta betez eraiki daitezela desgaitasunen bat edo mugikortasun urria dutenen autonomia osoa ahalbidetzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari

Se quejan los vecinos de Altza que los accesos en ascensor al interior de la Estación se encuentran en mitad de la plaza; que están al aire libre, por lo que no hay posibilidad de resguardarse de los rigores climáticos. Y que hay varios tramos de peldaños en cada una de las bocas que dificultan el acceso a personas con movilidad reducida; lo cual no parece una solución idónea para una recién construida infraestructura de este tipo, cuyos trabajos han correspondido a Eusko Trenbide Sarea, dependiente del Gobierno Vasco.

Hay que recordar, además, que, en 2030, se espera que el 30 por ciento de la población de San Sebastián tenga más de sesenta años, y que hay que preparar las nuevas infraestructuras y equipamientos con vistas a su utilización plena por el conjunto de la ciudadanía, que para eso pagan sus impuestos y tienen todos los mismos derechos y obligaciones.

Es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:

1.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Vasco y al Gobierno de España que en los equipamientos e infraestructuras que, bajo su competencia, se construyan en San Sebastián, se hagan respetando e incorporando las previsiones normativas relativas a la accesibilidad universal, para permitir la autonomía plena de aquellas personas que sufran algún tipo de discapacidad o que tengan movilidad reducida.

2.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno

eta Euskal Trenbide Sareari eskatzen die Oleta ibarra leheneratzeko ahaleginean inplikatzeko, auzotarrek eskatzen duten bezala, bertakoentzako aparkalekua eta berdegunea egiteko proiektua lehenbailehen errealitatea izateko.

Vasco y a Euskal Trenbide Sarea a que se impliquen en la restauración de la vaguada de Oleta para que, tal como demandan los vecinos y vecinas, el proyecto de aparcamiento para residentes con espacio verde se haga realidad lo antes posible.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatezak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamaseiko azaroaren bian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a dos de noviembre de dos mil dieciséis.

ALKATEAK O. E. /
V. ° B. ° DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

10. Mozio arrunta, IRABAZI Taldeak aurkeztua, abenduaren 3a, euskararen eguna, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiegun gisa ezartzeari buruzkoa.

“Amaia Martin andreak, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, indarrean dagoen Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, Udaltzaren aztertzeko aurkeztu du MOZIO ARRUNT hau, abenduaren 3a, Euskararen Eguna, EAEn jaiegun gisa ezartzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Euskadi.eus webgunean irakur daitekeen

10. Moción ordinaria, presentada por el grupo IRABAZI, en relación al establecimiento del día 3 de diciembre, día del euskera, como festivo en la CAPV.

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN ORDINARIA en relación al establecimiento del día 3 de diciembre, Día del Euskera, como día festivo en la CAPV.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como puede leerse en la web Euskadi.eus,

moduan, Euskararen Egunaren aldeko lehen aldarrikapenak antzinakoak dira: Errepublika garaian Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antolatutako antzerti eta oleri zein bertsolari egunak... Aipatzekoak dira, halaber, Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz Iparraldera alde egindako euskaltzaleek zein bertokoek Euskaltzaleen Biltzarraren babespean egindako lanak. Sasoi horretakoa (1949) da, hain justu, Eusko Ikaskuntzak sortutako lehenengo Euskararen Eguna.

Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna 1995ean instituzionalizatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak. Harrezkero, euskararen erabilera eta euskara bera sustatzeko asmoz, hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu dituzte (mahai-inguruak, erakusketak, tailerrak, azokak, mota desberdinetako ikuskizunak, aurkezpenak...) egun seinalatu horretan, Euskal Herriko bazter guztietan, euskara bultzatu eta omentzeko.

Donostiako Udalak berak jarduera agenda ederra du Euskararen Eguna ospatzeko. Iaz, aurreko urteetan bezalaxe, 150 jarduera garatu ziren hiriko auzo guztietan zehar: Mintzodromoa, literatura saioak, familientzako lantegiak, haur jolasak, herri kirolak, zinema, antzerkia...

Aurten, halaber, Kultur Hiriburutza dela eta, "Hizkuntza Aniztasunaren Europako Gailurra" egingo da abenduaren 8tik 10era. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak ezagutzen ditu hizkuntza eskubideak: "Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorteria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik".

las primeras reivindicaciones a favor del Día del Euskera datan de hace mucho: encuentros sobre poesía, versos, etc. organizados por Eusko Ikaskuntza, con la ayuda de Euskaltzaleak Bazkuna, durante la República. También es digno de mención el trabajo hecho por quienes huyeron a Iparralde durante la Guerra Civil bajo el manto de Euskaltzaleen Biltzarra. De aquella época (1949) data, precisamente, el primer Día del Euskera organizado por Eusko Ikaskuntza.

El Día Internacional del Euskera, institucionalizado por el Gobierno Vasco y la Real Academia de la Lengua Vasca en 1995, se celebra anualmente el 3 de diciembre. Con motivo de dicha celebración, diversas asociaciones, entidades públicas y particulares organizan numerosas actividades (mesas redondas, exposiciones, talleres, ferias, presentaciones y todo tipo de espectáculos) ese día señalado en muchos de los rincones del País Vasco, para apoyar y homenajear el euskera.

El propio Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián cuenta con toda una agenda de actividades para celebrar el Día del Euskera. El año pasado, al igual que años anteriores, se desarrollaron 150 actividades por todos los barrios de la ciudad: Mintzodromoa, sesiones literarias, talleres para familias, juegos infantiles, deporte rural, cine, teatro ...

Asimismo, este año con motivo de la Capitalidad Cultural, del 8 al 10 de diciembre tendrá lugar la "Cumbre Europea de la Diversidad Lingüística". Los derechos lingüísticos son reconocidos por la Declaración Universal de los Derechos Humanos: "todas la personas tienen los mismos derechos sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquier otra condición".

Gailurraren helburua da Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Bartzelona, 1996) printzipioak eta espirtua garatzea ahalbidetuko duen protokolo bat lantzea, hizkuntza erkidegoen arteko benetako berdintasuna erdiesteko.

Azken 35 urteetan politika ugari garatu dira euskara ikasteko eta erabiltzeko eta aurrerapauso handia egin da bide horretan: Euskal Autonomia Erkidegoak 300.000 hiztun baino gehiago irabazi ditu eta historikoki presentziarik izan ez duen gizarte esparruetan kokatu da euskara.

Hori guztia dela eta, uste dugu abenduaren 3a, Euskararen Eguna, jaiegun gisa ezarri beharko litzatekeela Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen garrantziari merezi duen ezagumendua emateko. Badakigu eztabaida hori ez dela berria eta arrakastarik gabe aztertu dela Eusko Legebiltzarrean eta beste zenbait erakundetan, egun horrek abenduaren 6ko eta 8ko jaiegunekin batera ia astebeteko "zubia" sortuko lukeela argudiatuta. Horregatik, Patxi Lópezen Eusko Jaurlaritzak urriaren 25a ezarri zuen jaiegun gisa, Gernikako Estatutua onartu zeneko eguna, eta Iñigo Urkullurenak, berriz, 2016ko urriaren 7a, lehen Eusko Jaurlaritzaren 80. urteurrena ospatzeko.

Horregatik aurkeztu du Irabazi Donostia taldeak honako

MOZIO ARRUNTA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari abenduaren 3a, Euskararen Eguna, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiegun gisa ezartzeko 2017. urtetik aurrera.

Donostia, 2016ko urriaren 6a

Sin.: Amaia Martin Garin,

El objetivo de la Cumbre es elaborar un Protocolo que permita desarrollar los principios de la Declaración Universal de Derechos Lingüísticos (Barcelona 1996) y su espíritu, a fin de alcanzar una verdadera igualdad entre las diferentes comunidades lingüísticas.

Son muchas las políticas que a lo largo de los últimos 35 años se han llevado a cabo para su conocimiento y su uso, lo que ha supuesto un gran avance en ese camino: Euskadi ha ganado más de 300.000 hablantes, y el euskera se ha posicionado en ámbitos sociales en los que históricamente no lo había estado.

Por todo ello, consideramos que el día 3 de diciembre, Día del Euskera, debería establecerse como festivo en Euskadi, como una forma más de reconocer la importancia del euskera. Sabemos que este debate no es nuevo y que se ha tratado tanto en el Parlamento Vasco como en otras instituciones sin éxito, con el argumento de que esa fecha coincidiría con los festivos 6 y 8 de diciembre lo que produciría un "puente" de casi una semana. Por este motivo, el Gobierno vasco de Patxi López estableció el día 25 de octubre, día de la aprobación del Estatuto de Gernika como festivo, y el de Iñigo Urkullu para 2016 el 7, coincidiendo con el 80 aniversario del primer Gobierno vasco.

Por este motivo, Irabazi Donostia presenta la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco a establecer el día 3 de diciembre, Día del Euskera, como día festivo en Euskadi a partir de 2017.

Donostia, 6 de octubre de 2016

Fdo Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.”

Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Miren Azkarate Villar andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D^a. Amaia Martín Garín, D^a. María Luisa García Gurruchaga, D^a. Miren Azkarate Villar, D^a. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D^a. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

EH BILDU TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO Nº10 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

**BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8– (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.**

**VOTOS A FAVOR: 8– (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (3) PP.**

10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO Nº 10:

**BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8– (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.**

**VOTOS A FAVOR: 8– (6) EH BILDU, (2)
IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)
PSE-EE, (3) PP.**

11. Mozio arrunta, EH BILDU Taldeak aurkeztua, MUGI txartelarekin doako ontzi-aldaketak direla eta.”

11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre sobre los transbordos gratuitos con la tarjeta MUGI.

KENDUA.

RETIRADA.

II.2

II.2

KONTROL MOZIOAK

MOCIONES DE CONTROL

II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, udan Donostian izandako mugikortasun arazoak direla-eta.

II.2.1. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la negociación del convenio laboral de la Fundación Zorroaga.

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 16an Pertsonen Zerbitzuentzako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada por el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas del 16 de mayo de 2016.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Martxoaren 8an Zorroaga Fundazioko osoko batzarra deitu zen. Bertan, gai-zerrendako 5. puntuari jarraituz, fundazioaren lan-hitzarmenaren inguruko negoziazioen emaitzaren berri eman zigun zuzendariak. Berak aipatu zuenez, ezinezkoa izan da aurreikusitako epeetan langileekin adostasunera iristea.

El 8 de marzo estaba convocada la Asamblea General de la Fundación Zorroaga. En ella, según el quinto punto del orden del día, la Dirección nos dio cuenta del resultado de la negociación del convenio laboral de la fundación. Según mencionó, ha resultado imposible alcanzar un consenso con la plantilla en los plazos previstos.

Hori ikusita, osoko-batzarrean parte-hartzen dugunok hurrengo erabaki genuen: langileen ordezkarien eta zuzendaritzaren arteko negoziatio-epea luzatzea hilabetez; hau da, apirilaren 8ra arte, eta egun horretan osoko-batzarra deitzea prozesuaren berri emateko.

En vista de ello, la asamblea plenaria decidió prorrogar un mes el plazo de negociación entre los/as representantes de los trabajadores/as y la Dirección, concretamente hasta el 8 de abril, y convocar una nueva reunión a celebrar ese día para conocer las últimas novedades sobre el tema.

Apirilaren 8an jakin izan genuen, langileen ordezkarien eskutik, ez zela akordiorik lortu,

El 8 de abril se nos informó por parte de los trabajadores/as que no habían llegado a ningún

baina Zorroagako zuzendaritzaren eta lehendakartzaren eskutik ez zen deialdirik jaso bilera egiteko. Hau ikusita, apirilaren 12an osoko-batzarreko partaideak garen bi ordezkari proposamen bat luzatu genion idatziz zuzendariari eta lehendakariordeari:

Martxoaren 8an Zorroagan egindako bileran batzordeak hurrengo erabaki zuen: hilabete batez langileekin eta zuzendariaren arteko negoziazioak mantentzea, lan-hitzarmenean adostasuna lortzeko. Dagoeneko hilabete bat pasa da eta momenturarte ez zaigu transmititu akordioa lortu denik. Gauzak horrela, proposatzen dugu hurrengo bilerako gai-ordenean puntu hau sartu eta bozkatzea: adostasuna lortu ez bada, egoera desblokeatzeko helburuarekin, hilabete bateko epearekin negoziazio mahai bat osatzea, Zorroagako juntako kideekin, alderdi bakoitzeko pertsona batekin.

Maiatzaren 13an egindako osoko batzarrean lan-hitzarmenaren inguruan hitz egin genuen berriro ere: alde batetik, langile batzordeak bere proposamena azaldu zuen eta, bestetik, Fundazioko Zuzendaritzak, berea. Zuzendariak idatzi bat prestatu zuen adostasunak-desadostasunak non dauden adierazteko eta hurrengo bozkatu zen:

- 2015eko atzerapenak ordaintzea, hitzarmenaren egungo araudiaren arabera.
- Hitzarmenaren negoziatioarekin aurrera jarraitzea.
- Etorbizuneko negoziatioaren emaitza 2016/01/01etik aurrera aplikatzea.

Ekainaren 14ko batzordean, bileraren 6. puntuan lan-hitzarmenaren negoziatioan

acuerdo y que no habían recibido ninguna convocatoria de reunión por parte de la Dirección y de la Presidencia de Zorroaga. Consiguientemente, el 12 de abril, dos miembros de la asamblea plenaria trasladamos la siguiente propuesta por escrito a la Dirección y a la Vicepresidencia:

La junta aprobó el siguiente acuerdo en la sesión celebrada en Zorroaga el 8 de marzo: mantener negociaciones durante un mes entre la parte trabajadora y la Dirección, para conseguir el consenso en el convenio laboral. Ya ha transcurrido un mes y, hasta este momento, no se nos ha transmitido que se haya alcanzado el acuerdo. Así las cosas, proponemos que en el orden del día de la siguiente sesión se incluya y se vote un punto que diga que en caso de no alcanzarse ningún acuerdo y, con el fin de desbloquear la situación, se constituya una mesa negociadora, con un mes de plazo para negociar, con miembros de la Junta de Zorroaga y un/una representante de cada partido.

En la sesión plenaria del 13 de mayo de nuevo tratamos el asunto del convenio laboral: por un lado, la comisión de trabajadores y trabajadoras explicó su propuesta y, por otra parte, la Dirección de la fundación, la suya. La Dirección realizó un escrito que expresaba dónde se encuentran los puntos de acuerdo y los desacuerdos, y se votó lo siguiente:

- abonar los atrasos de 2015 según la normativa vigente del convenio,
- seguir adelante con las negociaciones,
- aplicar el resultado de la futura negociación a partir del 01/01/2016.

En la sesión del 14 de junio, en el punto 6º del orden del día, se comentaron los progresos

emandako aurrerapausoak komentatu ziren: adostasuna lortu da oporren gaiarekin, baina desadostasunak daude gaueko plusean eta ordezkapenetan. Lehendakariordeak proposatu zuen negoziazioa Precoan egitea, baina ez zen adostasunik egon langile-batzordearen aldetik. Bestetik, zuzendaritzak adierazi zuen 2015eko atzerapenen ordaintzarekin arazoak zeudela eta ez zegoela argi egingo zen ala ez.

Orain arte ez da aurrerapausorik eman negoziazioan eta langileen aldetik protestak egiten ari dira, 2016. urtea bukatzeko 2 hilabete falta direnean, hitzarmen berririk gabe jarraitzen dutelako.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren gestioak egin ditzala Zorroaga Fundazioaren maitzaren 13ko osoko batzarrean hartutako erabakia bete dadin. Hau da, langileei 2015eko atzerapenak ordaintzea, eta, legez ezinezkoa izatekotan, idatziz adieraz diezazkiela langileei eta Fundazioko patronatuari ordaintza egin ezinaren arrazoiak.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren gestioak egin ditzala Zorroaga Fundazioak bere langileei 2016eko atzerapenak ordaintzeko, eta, legez ezinezkoa izatekotan, idatziz adierazi diezazkiela langileei eta Fundazioko patronatuari ordaintza egin ezinaren arrazoiak.

3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari 2016a bukatu baino lehen Zorroagako

realizados en la negociación del convenio laboral: se ha conseguido el consenso en el asunto de las vacaciones, pero existen diferencias en lo que atañe al plus de nocturnidad y a las sustituciones. La Vicepresidencia propuso que la negociación se realizara en el Preco, pero no hubo acuerdo por la parte del comité de trabajadoras y trabajadores. Por otra parte, la Dirección manifestó que había problemas con el abono de los atrasos de 2015 y que no estaba claro si se iba a realizar.

Hasta ahora no ha habido progresos en la negociación y la plantilla está llevando a cabo protestas, cuando faltan dos meses para finalizar 2016, porque siguen sin un nuevo convenio.

Por todo lo anteriormente recogido, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. El Ayuntamiento Pleno pide al Gobierno municipal que realice las gestiones precisas para que se cumpla el acuerdo aprobado el 13 de mayo en la asamblea de la Fundación Zorroaga. Es decir, que se abonen los atrasos de 2015 a la plantilla, y, si resultara imposible legalmente, que se comunique por escrito a la plantilla y al Patronato de la Fundación las razones de la imposibilidad del abono.

2. El Ayuntamiento Pleno pide al Gobierno municipal que realice las gestiones precisas para que la Fundación Zorroaga abone a su plantilla los atrasos de 2016 y, si resultara imposible legalmente, que se comunique por escrito a la plantilla y al Patronato de la Fundación las razones de la imposibilidad del abono.

3. El Ayuntamiento Pleno pide al Gobierno municipal que colabore en el proceso de

Fundazioak langileekin lan-hitzarmen bat adosteko prozesuan lagundu dezala.

consensuar un convenio laboral entre la Fundación Zorroaga y la plantilla antes de que finalice 2016.

Donostian, 2016ko urriaren 21ean

En San Sebastián, a 21 de octubre de 2016

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.”.

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D^a. Olaia Duarte López, D^a. Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D^a. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.**

II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, 2016ko 15965 idatzia ez entregatzeko arrazoiei buruzkoa.

“Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2016ko 15965 idatzia gure taldeari ez entregatzeko arrazoiei buruzkoa, osoko bilkuran azter dadin. Irailaren 17ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

II.2.2. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre las razones para no entregar el escrito 15965 de 2016.

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre las razones para no habernos entregado el escrito 15965 de 2016. La moción es consecuencia de la Interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 17 de Septiembre.

JUSTIFICACIÓN

Informazioa eskuragarri izatea udalkideak garenon oinarritzko eskubidea da, gobernuaren jarduera fiskalizatzeko eta kontrolatzeko eginkizuna bete ahal izateko. Hori azterketa judiziala egiteko objektu ere izan da.

Udal araudiak eginkizun hori betetzeko behar dugun informazioa lortzeko prozedura eta epea arautzen ditu. Zentzu horretan, ezarritako izapidea bete dugu eta orain arte ezin izan dugu eskatutako eta beharrezko informazioa eskuratu, emandako epean, gure eginkizunak guztiz eta eraginkorki bete ahal izateko.

Zehatzago esanda, pasa den abuztuaren 1ean, Familia Santuaren kalea 12, 8.A helbidean turismorako apartamentua ezartzeari buruzko idatzia eskatu genuen (15965 idatzia, uztailaren 27an Udaleko erregistroan aurkeztutakoa), baina gaur arte, araudiaren arabera ezarritako epea nabarmenki bete ez bada ere, ez dugu eskuratu ahal izan.

Hirigintzako zinegotzi ordezkaria interpelatzean, aitortu zigun Udaltzaren Organo Araudian ezarritakoa ez zela betetzen ari, lan kargaren ondorioz sortutako arazoak medio.

Hala ere, kontua da ekainaren 23tik aurrera ez dugula jaso Hirigintza Sostengagarriko departamentuaren jardueren inguruko agiririk. Hori nekez azal daiteke, salbu eta norbaitek eskatutako informazioa ez emateko erabakia hartu izan balu.

Egia da hil honen 20an, eskatutako

El acceso a la información es un derecho básico que nos asiste como corporativos para cumplir con la función de fiscalización y control de la actividad del gobierno. Ello ha sido incluso objeto de reconocimiento judicial.

La normativa municipal regula el procedimiento y los plazos para obtener la información necesaria para que podamos cumplir con dicha función. En este sentido, hemos cumplido el trámite establecido sin haber podido acceder a la información requerida y necesaria, en el plazo conferido, para el pleno y efectivo cumplimiento de nuestras funciones.

Más concretamente el pasado 1 de agosto, solicitamos el escrito referido a la implantación de un apartamento turístico en la C/ Sagrada Familia 12- 8º A (escrito 15965 presentado en el registro del Ayuntamiento el pasado 27 de julio) sin que hasta la fecha, y a pesar de haberse incumplido más que notoriamente el plazo establecido reglamentariamente hayamos podido tener acceso al mismo.

Interpelado al respecto el delegado de Urbanismo nos reconoció que se estaba incumpliendo lo establecido en el Reglamento Orgánico del Pleno, aduciendo problemas derivados de la carga de trabajo como causa para estar incumpliendo lo establecido en el ROP.

Sin embargo, la realidad es que desde el 23 de junio no se estaba recibiendo ninguna de la documentación que se estaba pidiendo al servicio de actividades del departamento de Urbanismo Sostenible; algo, difícilmente explicable, salvo que alguien hubiese tomado la decisión de no facilitar la información solicitada.

Es cierto que el 20 del presente mes, hemos

informazioa oso modu soilean jaso dugula, baina ez zaigu egokia iruditzen salaketa publikoa egin eta interpelazioak aurkeztu behar izatea Udalbatzaren Organo Araudian ezarritakoa betetzeko.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari Udalbatzaren Organo Araudiko betebeharrak bete ditzala, aipatutako eta eskatutako informazioa epe barruan eskaintzeari begira.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari orain arte eskatutako informazio guztia eskain dezala oraindik ez bada eman, nahiz eta epea aspaldi gaindituta egon.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, aurrekoa alde batera utzi gabe, sistema azkar eta kontrolatua jarri dezala abian. Horrela, zinegotziek informazioa eskuragarri izango dute eta fiskalizatzeko zein kontrolatzeko eginkizuna bete ahal izango dute, legeak ezarritako baldintzetan.

Donostian, 2016ko urriaren 21ean

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

recibido escuetamente la información solicitada; pero no nos parece que tenga que ser necesario recurrir a la denuncia pública y a la presentación de interpelaciones para lograr que se cumpla lo establecido en el Reglamento Orgánico del Pleno.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

